



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
(2024-06-27/07)

<b>Bilkuraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-06-27
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza)
<b>Hasiera-ordua:</b>	09:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	10:40

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	

**Bertaratu ez direnak:**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

**Kontuhartzailea:** Edurne Urrutia Uriarte

**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga

**Aztergaiak**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-05-30 OB (06)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Etxebizitza babestuen eta zuzkidura bizitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularri eta espezializatuari eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeari buruzko Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetz hitzarmena onartzea.
- 4.- NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabileraren doako eta zuzeneko lagapena egiteko eskaria onartzea.
- 5.- Bermeoko auzoetako zenbakiak zuzentzea onartzea.
- 6.- 2023 urteko biztanle-zifra onartzea.
- 7.- 2024 urteko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarriak onartzea.
- 8.- EH BILDU eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz" izeneko mozioa onartzea.
- 9.- EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako "EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz" izeneko mozioa onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
 Kodea:  
 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**  
 JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
 Fecha: 11/07/2024  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidaidea:  
 Erregistro nagusia



10.- EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "Galdakao-Usansoloko Ospitalean oinarritzko pediatria zerbitzu bat eta arrisku baxuko erditzeen artatze-zerbitzuaren" aldeko udal-mozioa onartzea.

11.- EH Bildu, GUZAN eta EAJ-PNV udal taldeek aurkeztutako "LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna" izeneko adierazpen instituzionala onartzea.

12.- 2024ko 2462-3197 zenbakidun alkatetza dekretuen barri emotea.

13.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien barri emotea: 2024ko maiatzaren 28 eta 30 eta ekainaren 4 eta 11ko erabakiak.

14.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2024-05-30 OB (06)

Batzarkideek 2024ko maiatzaren 30eko 06/2024 akta aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Arantza Ormazak, Victor Uriartek, Miren Karmele Gabantxok eta Alazne Zumetak adierazi dute gai zerrendako 8. eta 9. puntuetan interes pertsonala edo familiarik daukatela.

### 3.- ETXEBIZITZA BABESTUEN ETA ZUZKIDURA BIZITOKIEN ESKATZAILEEN ERREGISTROARI LOTUTAKO HAINBAT PROZEDURARI DAGOKIENEZ, INFORMAZIO PARTIKULARRARI ETA ESPEZIALIZATUARI ETA HERRITARREI BITARTEKO ELEKTRONIKOEN ERABILERAN LAGUNTZEARI BURUZKO BERMEOKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Zigor Uriondok diktamenaren nondik norakoak azaldu ditu.

### Xedea

Etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitokiaren eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokionez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko, Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: Etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitokiaren eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokionez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmen eredu bidali zen Eusko Jaurlaritzatik.

Bigarrena: 2024ko ekainaren 11n Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria, txosten juridikoa eta erabaki proposamena eman ditu.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 5. artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 11. artikulua, 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.h) artikuluen arabera, Osoko Bilkurari dagokio, eta gehiengo osoz onartu beharko da.

### Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

**LEHENENGOA:** Etxebizitza babestuen eta zuzkidura bizitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularra eta espezializatu eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko, Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

**BIGARRENA:** Interesdunari erabakiaren berri ematea, hitzarmena sinatu dadin.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari erabakia eta Berualari erabagiaren berri ematea.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



ERANSKINAEUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRABERMEOKO UDALA**GAIA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, informazio partikularrari eta espezializatuari eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeari buruzkoa, etxebizitza babestuen eta zuzkidura bizitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko xxxxxaren xxx (a).

**BILDU DIRA**

ALDE BATETIK, Ignacio María ARRIOLA LÓPEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua.

ETA BESTETIK, Nadia NEMEH SHOMALY, Bermeoko Udaleko alkate-udalburua.

**PARTE HARTU DUTE**

Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu gisa, eta Gobernu Kontseiluaren 2019ko xxxxxaren xx (e) ko Erabakiaren bidez baimenduta, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean.

Bigarrena, Bermeoko Udaleko alkate-udalburu gisa, Udalbatzak 2024(e)ko ekainaren 27(e)(a)n egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Agerleek elkarri aitortu diote lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko behar adinako gaitasuna.

Hirugarrena Bermeoko Udalarik atxikitako erakunde publiko gisa azaltzen da, kudeatzaile gisa, aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin, eta horretarako,

**ADIERAZTEN DUTE**

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**LEHENENGOA.-** Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, APEL) 12. eta 53. artikuluetan arautzen du interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzen laguntzea eta haien eskubideak; eta 13. artikuluan, berriz, pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan ditzuten eskubideak.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak (aurrerantzean, Etxebizitzaren Legea), 13. artikuluan, Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortu zuen, edo hobeto esanez, jarraipena eman zion etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren mendekoa zen eta antzeko ezaugarriak zituen aurreko administrazio-erregistroari, hots, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak arautzen duen Erregistroari (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da agindu hori).

**BIGARRENA.-** Hauek dira Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroaren lehenengo bi eginkizunak:

a) Babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak eskuratzeko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen ditzuten, etxebizitza eskatzen duten pertsona fisikoak edo bizikidetz-unitateak erregistratzea.

b) Babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak kudeatzeko eta esleitzeko behar diren datuak ematea herritarrei berdintasuna eta lehia bermatuz etxebizitza horiek eskuratzeko orduan.

2012ko urriaren 15eko Aginduaren 5. artikulua xedatzen duenez, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak hitzarmenak sinatu ahal izango ditu Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren kudeaketan laguntzeko interesa duten udalekin, beren udalerrian aurkezten diren eskaerak eta horiekin lotutako dokumentazioa erregistratuz. Eta 7. artikuluan jasotzen denez, udal horiek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren baldintzei eta funtzionamenduari buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko diete herritarrei.

Azkenik, 25. artikulua arabera, babes ofizialeko etxebizitzak, parekatutako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko, pertsonen edo bizikidetz-unitateek Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, salbuespen batzuk aurreikusten badira ere.

**HIRUGARRENA.-** Etxebizitza Legeak, II. kapituluaren 2. artikuluan, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa arautzen du. Eskubide horren edukia Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren bidez garatu da.

Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboaren (aurrerantzean, eskubide subjektiboa) titularrek honako baldintza hauek bete behar dituzte, besteak beste:

e) Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan baliozko eran inskribatuta egotea, alokairuko eskatzaile gisa soilik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



f) Artikulu honen e) letran aipatzen den inskripzioan gutxienez hiru urteko antzintasuna egiaztatzea, etenik gabe eta etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzeko eskaera egin aurreko hiru urteetan, aipatutako dekretuaren 8. artikuluan ezartzen diren salbuespenetan izan ezik.

**LAUGARRENA.-** Arau horiek irakurtzea nahikoa da ulertzeko zer garrantzi duen Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan (aurrerantzean, Erregistroa) behar bezala izena emateak etxebizitza babestuaren eskatzaileentzat eta, are gehiago, eskubide subjektiboa aitortu nahi dutenentzat. Hala ere, ez zaie beti erraza izaten eskaerak betetzea, behar duten dokumentazioa ematea, egoera-aldaketak jakinaraztea, etab., batez ere zerbitzu publikoen eta administrazio-prozeduren digitalizazioak aurrera egin ahala, eta, beraz, izapidetze elektronikok aurrera egin ahala.

**BOSGARRENA** .- Ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak, herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa eta zerbitzu publikoetarako sarbidea bitarteko elektronikoen bidez emateari buruzkoak, 20. artikuluan ezartzen du jarduketa-arlo, zerbitzu eta prozedura bakoitzean eskumena duten administrazio-organoek eman behar dietela informazio partikularra eta informazio espezializatua herritarrei.

Dekretu horren 24. artikulua arabera, informazio espezializatutzat joko da administrazioaren jardueraren eduki espezifiko eta zehatza eskaintzea xede duena, baldin eta eduki horrek gaiagatik, xehetasunagatik edo konplexutasun juridiko edo teknikoagatik bereziki kualifikatutako langileen arreta eskatzen badu.

26. artikulua arabera, informazio partikularra izango da interesdunei aukera ematen diena izapidetzen ari diren edo amaituta dauden prozeduren egoerari edo edukiari buruzko eskubide eta interes legitimo zehatzak baliatzeko.

Horrenbestez, Erregistroari, eskubide subjektiboari eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko gauzatzen dituen prozedurei dagokienez, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza arduratzen dira informazio mota hori eskaintzeaz.

101. artikuluan, Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoen eginkizunen artean, herritarrei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko harremanetan bitarteko elektronikok erabiltzen laguntzea sartzen da.

Hala ere, udalak jarduera horietan sartzea abantaila handia da herritarrentzat, eta, gainera, erregistroaren kudeaketa hobetzen eta eskubide subjektiboa aitortzeko prozeduren eta etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren esleipen-prozeduren izapidetzea arintzen laguntzen du. Bestalde, udalak dira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak eta, beraz, zerbitzu horretan udalaren parte hartzeak herritarrei zerbitzu ona jasotzen laguntzen die eta administrazioaren pertzepzioa hobetzen du.

Horretarako, beharrezkoa da langileek Erregistroan eta eskubide subjektiboaren kudeaketari eta esleipen-prozedurei euskarria ematen dieten aplikazio informatikoetan jasotako informazioa kontsultatzeko aukera izatea:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0





Asmo horrekin, eta betiere inplikaturako alderdi bakoitzaren eskumen-mailak errespetatuz, bakoitzaren interesak, konpromisoak eta ekarpenak behar bezala bideratzeko, alderdi guztiek lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Bermeoko Udalaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren arteko lankidetzaz artikulatzea, administrazio-informazioaren arloan, informazio partikularraren zein espezializatuaren arloan, eta herritarrei laguntza ematea bitarteko elektronikoen erabileran, Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroari lotutako prozeduretan, hala nola erregistroan inskribatzea, aldatzea eta baja ematea, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak gauzatutako babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan parte hartzea, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eskaera egitea eta hura azkentzea, eta etxebizitzako prestazio ekonomikoa aldatzea, etetea eta azkentzea.

Lankidetzaz horren ondorioz, honako pertsona edo bizikidetzaz-unitate hauek soilik eskuratu ahal izango dute informazio hori, aldez aurretik identifikatuta:

- Etxebizitza babestuaren edo zuzkidura-bizitokiaren eskatzaileak, Bermeoko udalerrian erroldatuta badaude.
- Erroldatu gabe egonik, Bermeoko udalerrian etxebizitza babestua edo zuzkidura-bizitokia eskatzen dutenak.

### BIGARRENA.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren konpromisoak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak konpromisoa hartu du hitzarmen honen esparruan honako jarduketa hauek egiteko:

- Bermeoko Udalak berariaz horretarako izendatutako langileei kontsulta egiteko behar diren aplikazio informatikoetarako sarbidea ematea:
  - Lehenengo klausulako bigarren paragrafoan zerrendatutako pertsonak edo bizikidetzaz-unitateak erregistroan inskribatzea.
  - Eskubide subjektiboa aitortzeko eta azkentzeko espedienteak eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa aldatzeko, eteteko eta azkentzeko espedienteak.
  - Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak garatutako esleipen-prozeduretan parte hartzeari buruzko informazioa.



- Langile horiei aholkularitza eskaintzea Erregistroaren, eskubide subjektiboaren eta babes publikoko etxebizitzak, parekatutako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduren araudi erregulatuareari buruz, bai eta aholkularitza ematea ere Erregistroan inskribatzeko, aldatzeko edo baja emateko eskaerak, Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa aitortzeko eskaerak eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa emateko eta esleipen-prozeduretan parte hartzeko eskaerak kudeatzeari dagokionez.
- Herritarren kontsultei erantzuteko prestakuntza ematea, honako hauei dagokienez: erregistroan sartzeko baldintzak eta erregistroa kudeatzea, babes publikoko etxebizitzak, parekatutako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak, eta eskubide subjektiboa.
- Bermeoko Udalari ematea inprimaki elektronikorik ez duten izapideei dagozkien paperezko inprimaki eguneratuak, baldin eta Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa kudeatzearekin, babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan parte hartzearekin eta etxebizitza bat eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzearekin lotutako jarduketetan erabili behar badira.
- Bermeoko Udalari informazio estatistiko eguneratua eta anonimoa ematea, hala eskatzen badu, Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden edo etxebizitza bat eskuratzeko eskubide subjektiboa edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa aitortzea eskatu duten Bermeoko pertsoneri buruz.

#### **HIRUGARRENA.-** Bermeoko Udalaren konpromisoak.

Bermeoko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen esparruan honako jarduketa hauek egiteko, lehenengo klausularen bigarren paragrafoan aipatutako pertsoneri dagokienez, behar bezala identifikatuta, NANA edo bizileku-txartela edo pasaporteak aurkeztu ondoren:

- Erregistroan jasotako inskripzio-eskaerei eta horien aldaketei edo bajei buruzko informazio administratiboa, partikularra zein espezializatua ematea.
- Herritarrei laguntza ematea bitarteko elektronikoak erabiltzeko, erregistroan inskribatzeko, aldatzeko edo baja emateko prozeduretan.
- Eskubide subjektiboa aitortzeko eta azkentzeko eta etxebizitzako prestazio ekonomikoa aldatzeko, eteteko eta azkentzeko espedientei buruzko informazio administratiboa, partikularra zein espezializatua ematea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



- Herritarrei laguntza ematea baliabide elektronikoak erabiltzeko, eskubide subjektiboa aitortzeko eta azkentzeko eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa aldatzeko, eteteko eta azkentzeko prozedurei dagokienez.
- Etxebizitza-gaietan eskumena duen sailak garatutako esleipen-prozeduretan parte hartzeari buruzko informazio administratiboa, partikularra zein espezializatua ematea.
- Herritarrei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak garatutako esleipen-prozeduretan parte har dezaten.
- Inprimaki elektronikoak erabiltzea, baldin badaude, eta paperezko inprimakiak bitarteko elektronikoen bidez egin ezin diren izapideetarako gordetzea.

### **LAUGARRENA.-** Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak datu pertsonalen babesaren arloko egungo araudiak eskatzen duenaren arabera tratatuko dira:

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Hitzarmen hau indarrean jartzen den egunean, Bermeoko Udala "Etxebizitza babestuen eta zuzkidura-bizitokien eskatzaileen erregistroa" (ID 1122) eta "Etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketa" (ID 1628) izeneko datu pertsonalen tratamendu-jardueren arduraduna izango da. Tratamendu horien arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragilean Zuzendaritza da.

Tratamenduaren xedea, iraupena, izaera eta helburua, datu pertsonal motak eta interesdun-kategoriak, eta arduradunaren eta eragilearen betebeharrak eta eskubideak hitzarmen honen eranskinean ezarritakoak dira.

Eranskin hori hitzarmenaren zati banaezina da eta izaera juridiko bera du, eta loteslea da, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 26ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### **BOSGARRENA.-** Araubide ekonomikoa



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Lankidetzeta-hitzarmen honek ez dakar alderdi sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik; hala ere, alderdi bakoitzak, hala badagokio, bere gain hartutako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren inbertsioak egin beharko ditu.

### **SEIGARRENA.-** Hitzarmenaren jarraipena

Bermeoko Udalak, etxebizitzaren arloan eskumena duen Sailaren ekarpenekin eta oniritziarekin, jarraipen-txosten bat egingo du urtero, Hitzarmen honetan zehaztutako konpromisoak betetzen direla jasotzeko.

Sor daitezkeen interpretazio-arazoak eta gatazkak eta/edo interferentziak konpontzeko, eta, oro har, sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzuteko, zuzenean komunikatuko dira erakunde parte-hartzaileetako solaskideak.

### **ZAZPIGARRENA .-** Hitzarmenaren araubide juridikoa eta izaera

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak arautzen dute. Hori dela eta, haren interpretazioaren, aplikazioaren, betearazpenaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen auzi guztien berri izatea administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio, aurreko klausulan aurreikusitako bidea agortu ondoren.

Berau, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago.

Hitzarmena aldatzeko, Bermeoko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko ahobatezko akordioa beharko da, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez.

### **ZORTZIGARRENA.-** Indarraldia eta azkentzea

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, sinatzen den egunetik aurrera. Epe hori beste lau urtez luzatu ahal izango da, indarraldia amaitu aurreko edozein unetan.

Hitzarmenaren indarraldia amaitu ahal izango da esku hartzen duten administrazioek hala adosten badute, edo administrazio horietako batek bere kabuz hala erabakitzen badu, besteak bere gain hartutako betebeharren ez-betetze larria egiaztatzen badu.



#### **Sinadurea eta data**



Hitzarmenean jasotako betebeharrak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoa izango da, eta alderdiak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Gainera, suntsipena eragin duen alderdiak sortu diren kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkie, bai beste alderdiei, bai fede oneko hirugarrenei.

Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu honen lau ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Ignacio María ARRIOLA LÓPEZ

## BERMEOKO UDALAREN ALKATE-UDALBURUA

Nadia NEMEH SHOMALY

### ERANSKINA

#### I. TRATAMENDUAREN ENKARGUAREN XEDEA

Eranskin honetako datu pertsonalak "Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa" (ID 1122) eta "Etxebizitzako prestazio ekonomikoaren kudeaketa" (ID 1628) tratamendu-jardueren erregistroen parte dira, eta horien arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza da.

Helburu hauek ditu: "Izena emanda dauden pertsonen unean uneko ezagutza; etxebizitza babestuen, zuzkidura-bizitokien eta parekatutako etxebizitzaren esleipenaren kudeaketa eta kontrola, eta izan ditzaketen gorabeherak; etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren aitortpena, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa barne", eta "Etxebizitzako prestazio ekonomikoa ematen denetik kudeatzea: baldintzei eustea, aldaketak, eteteak, azkentzeak, bidegabeki jasotako prestazioen itzulketak, geroratzek, zatikatzeak eta konpentsazioak; eta etxebizitza bat eskuratzeko eskubide subjektiboa", hurrenez hurren.

Datuen tratamendua beharrezkoa da Bermeoko Udalak kontsultak ebazten lagundu ahal izateko eta eranskin honetako hitzarmenaren lehenengo klausularen bigarren paragrafoan zerrendatutako interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen lagundu ahal izateko.

Bermeoko Udalak jarduera horiek egiteko berariaz izendatutako langileek bakarrik tratatu ahal izango dituzte datuak.

Hauek dira tratamendu-eragileak (Bermeoko Udalak) eskura ditzakeen interesdunen kolektiboak eta tratatutako datu pertsonalak:

ID 1122:

Interesdunen kolektiboak	Eskatzaileak Legezko ordezkariak
--------------------------	-------------------------------------



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



	Beste kolektibo batzuk
Eskura daitezkeen tratamenduaren datu pertsonalak	Identifikazio-datuak Ezaugarri pertsonalen datuak Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak Ekonomia-, finantza- eta aseguru-datuak Adingabeak Genero-indarkeriaren biktimak  Datu pertsonalen kategoria bereziak: osasuna

ID 1628:

Interesdunen kolektiboak	Eskatzaileak Legezko ordezkariak Jabeak edo errentariak Harremanetarako pertsonak Bizikidetz-unitateko kideak
Eskura daitezkeen tratamenduaren datu pertsonalak	Identifikazio-datuak Arau-hausteei buruzko datuak Ezaugarri pertsonalen datuak Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak Ekonomia-, finantza- eta aseguru-datuak Adingabeak Genero-indarkeriaren biktimak Transakzioei eta zerbitzuei buruzko datuak  Datu pertsonalen kategoria bereziak: osasuna

Tratamenduaren barruan, jarduketa hauek egingo dira:



## II. IRAUPENA

Eranskin honen indarraldia hitzarmenaren zortzigarren klausulan aurreikusitakoa da.

Behin amaituta, Bermeoko Udalak eranskin honetako III. ataleko Q) letran adierazitakoaren arabera jardungo du.

## III. TRATAMENDU-ERAGILEAREN BETEBEHARRAK

Bermeoko Udalak eta bertako langileek betebeharrak hauek izango dituzte:

**A)** Tratatu beharreko datu pertsonalak hitzarmen honetan aurreikusitako helburuetarako soilik erabilteza. Inola ere ezingo dituzte datuak beste helburu batzuetarako erabili.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



**B) Datuak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren jarraibideen arabera tratatzea.**

Bermeoko Udalak uste badu jarraibideren batek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua edo Batasuneko edo estatu kideetako datuen babesaren arloko beste edozein xedapen urratzen duela, berehala jakinaraziko dio Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari.

**C) Idatziz jasotzea tratamenduaren edozein arduradunen kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztiak, baita Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza ere, honako hauek jasota:**

- i) Udalaren izena eta harremanetarako datuak, datuak babesteko ordezkariarenak, hala badagokio, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzarenak.
- ii). Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berariaz sartuta.
- iii) Honako hauei buruzko datuen tratamenduaren inguruan hartzen diren segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoak deskribapen orokorra:
  - a.- Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
  - b.- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
  - c.- Gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko gaitasuna.
  - d.- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoak eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

**D) Datuak hirugarrenei ez jakinaraztea, salbu eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren berariazko baimena badu, legez onartutako kasuetan.**

**E) Organismo publiko batek edo tokiko merkataritza-sozietate batek etxebizitza-zerbitzuak kudeatzea.**

Bermeoko Udalak erakunde publiko baten edo tokiko sozietate publiko baten bidez kudeatzen baditu etxebizitza-zerbitzuak, eta erakunde horrek enkargu honen xede diren datu pertsonalak eskuratu behar baditu, bi baldintza hauek bermatu beharko ditu:

- i) Erakunde publikoak edo tokiko sozietate publikoak egiten duen datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarreko legeriarekin, mandatu honetan jasotakoarekin eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren jarraibideekin.
- ii) Bermeoko Udalak datu pertsonalen tratamendu-enkargu bat formalizatzea, mandatu honetan aurreikusitakoak bezain murriztaileak, behizat, diren baldintzetan. Enkargu hori tratamenduaren organo arduradunaren esku jarriko da, eskatzen duenean, haren existentzia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



eta edukia egiaztatzeko. Enkargu horren arabera, erakunde publikoa edo tokiko edo udalaz gaindiko sozietate publikoa tratamenduaren azpiarduradun bihurtuko da.

Nolanahi ere, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, edozein unetan egiaztatu ahal izango du adierazitako bi baldintzak bete direla.

F) Enkargu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gordetzea, baita xedea amaitu ondoren ere.

G) Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko, eta hartara aurrez, behar bezala jakinarazi behar zaizkiela.

H) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren eskura izatea aurreko apartatuan ezarritako betebeharra betetzen dela egiaztatzen duten agiriak.

I) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babestearen arloan behar den prestakuntza dutela bermatzea.

J) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari laguntzea interesdunengandik zuzenean jasotzen dituen eskubideei erantzuten, edo behar den informazioa ematea Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bidez aurkezten direnak ebatzi ahal izan ditzan.

Eragindako pertsonen aurreko eskubideak baliatzen dituztenean tratamenduaren eragilearen aurrean, arduradunak adierazitako helbidera posta elektronikoz jakinarazi beharko du. Jakinarazpena berehala egin behar da, eta inola ere ez eskaera jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera.

#### K) Informazio-eskubidea:

1. Tratamendu-eragileak, datuak biltzeko unean, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak emandako datu-tratamenduei buruzko informazioa eman behar dio interesdunari.

#### L) Datuen segurtasunaren urraketak jakinaraztea

Bermeoko Udalak posta elektronikoz bidez jakinaraziko dizkio Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, bidegabeko atzerapenik gabe eta, nolanahi ere, 48 orduko gehieneko epea igaro baino lehen, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko datuen babesaren arloko erreferenteentzat, bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, horien berri izanez gero, bai eta gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia ere, non eta ez den gertagarria segurtasunaren urraketa hori arriskutsua izatea pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako, eta, betiere, Bermeoko Udalaren erantzukizunpean, erabakiari eta ondorioei dagokienez.

Segurtasun-arrakalak ebaluatzeko Excel orria eta segurtasun-arrakalak jakinarazteko prozedura nahitaez erabiltzekoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, salbu eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak jakinarazpen-prozedura espezifiko bat ezartzen badu.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoz egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia





Bermeoko Udalari dagokio datuen segurtasunaren urraketak ahalik eta lasterren interesdunei jakinaraztea, urraketak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arrisku handia ekar dezakeenean.

Komunikazioa hizkera argi eta errazean egin behar da, eta gutxienez:

- i) Datuen urraketaren izaera azaltzea.
- ii) Adierazi Bermeoko Udaleko datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo, hala badagokio, informazio gehiago lor daitekeen beste harremanetarako puntu batenak.
- ii) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketak izan ditzakeen ondorioak deskribatzea.
- iv) Deskribatu Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko hartutako edo proposatutako neurriak, eta, hala badagokio, balizko ondorio negatiboak arintzeko hartutako neurriak.

**M)** Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari laguntza ematea arriskuen analisian eta, hala dagokionean, datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioan.

**N)** Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari laguntza ematea kontrol-agintaritzari aurretiazko kontsultak egiteko, hala dagokionean.

**O)** Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar den informazio guztia ere.

**P)** Segurtasun-neurriak ezartzea.

Bermeoko Udalak Segurtasun Eskema Nazionalan ezarritako segurtasun-neurriak ezarriko ditu, egiten duen datu-tratamenduari dagokionez.

Nolanahi ere, honako hauetarako mekanismoak ezarri beharko ditu:

- i) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.
- ii) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea.
- iii) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatu, ebaluatu eta baloratzea.
- iv) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, hala badagokio.

Bermeoko Udalak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak pribatutasun-neurrien arloan emandako jarraibideak bete beharko ditu.

**Q) Datuen xedea.**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Hitzarmena amaitzean, baliogabetu egingo dira Bermeoko Udalari emandako Etxebideren erregistroko plataformara sartzeko baimenak, eta datu pertsonalak plataforma horretan geratuko dira, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren eskura.

Baimenak ezeztatu ondoren, Bermeoko Udalak horiek tratatzeko erabilitako ekipo informatikoetan egon daitezkeen datu guztiak ezabatuko ditu.

Eragiketa horiek egiteko, Bermeoko Udalak eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak segurtasunari eta pribatutasunari buruz ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte.

#### IV. TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari eta, hala badagokio, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari dagokie:

a) Bermeoko Udaleko langileek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 26ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betetzen dutela zaintzea, aldez aurretik eta tratamendu osoan.

b) Tratamendua gainbegiratzea, ikuskapenak eta auditoretzak egitea barne.

Tratamenduaren arduraduna  sin.: Mario Yoldi Domínguez Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria	Tratamenduaren arduraduna  Izpta.: Nadia NemeH Shomaly  Bermeoko Udala
---	--



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



**4.- NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. ENPRESAK, LIFE URBASO PROIEKTUA GARATU AHAL IZATEKO, ARRANOTEGIKO 47. BASOAREN ERABILERAREN DOAKO ETA ZUZENeko LAGAPENA EGITEKO ESKARIA ONARTZEA.**

Zigor Uriondok diktamenaren nondik norakoak azaldu ditu.

**Xedea**

NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabileraren doako eta zuzeneko lagapena egiteko eskaria onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2024ko otsailaren 20an, NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabileraren doako eta zuzeneko lagapena egiteko eskaria aurkeztu zuen.

Bigarrena: 2024ko otsailaren 22an, Ingurumen teknikariak doako eta zuzeneko lagapen hori egiteko Justifikazio Memoria eman zuen.

Hirugarrena: 2024ko martxoaren 8an, arkitektoak lur eremu horren hirigintz-egoerari buruzko txostena eman zuen.

Laugarrena: 2024ko martxoaren 11an, Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa egin zuen.

Bosgarrena: 2024ko martxoaren 18an, udal diruzainak zorrik ez izatearen gaineko txostena eman zuen.

Seigarrena: 2024ko apirilaren 24an, idazkari nagusiak aldeko txostena eman zuen.

Zazpigarrena: 2024ko apirilaren 24ko 1.831 Alkatetza Dekretuz, NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabileraren doako eta zuzeneko lagapena egiteko espedienteari hasiera ematea erabaki zen.



Zortzigarrena: 2024ko maiatzaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, entzunaldia zabaltzeko iragarkia argitaratu zen.

Bederatzigarrena: Entzunaldia 2024ko ekainaren 3an amaitu da eta, Erregistro Orokorra aztertu ondoren, alegaziorik aurkeztu ez dela egiaztatu da.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1.372/1986 EDaren 109.2 110. eta 145. artikuluen eta Herri Administrazioen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legearen 145. artikulua arabera, egindako eskaria onartu daiteke.

Bigarrena: Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1.372/1986 EDaren 110. artikuluan jasotako prozedura jarraitu da eskaria onartu ahal izateko.

Hirugarrena: Aitatutako 1.372/1986 EDaren 110. artikulua arabera, erabakia hartzeko ahalmena Osoko Bilkurari dagokio, gehiengo osoz, 20 laneguneko entzunaldia igaro ondoren.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO, S.A. enpresak, LIFE URBASO proiektua garatu ahal izateko, Arranotegiko 47. Basoaren erabilerearen doako eta zuzeneko lagapena egiteko eskaria onartzea, baldintza hauen arabera:

- 1.- Erabilera lagapena LIFE URBASO proiektua garatzeko egiten da, eta proiektuan jasotakoa zehatz bete beharko da.
- 2.- Basoa, proiektuan zehaztuta ez dauden gai edo ekintzetarako erabiliko balitz, lagapena automatikoki bertan behera uzteko zioa izango da. Era berean, lagapena automatikoki bertan behera uzteko aukera izango du Bermeoko Udalak, LIFE URBASO proiektuan jasotakoa zehatz betetzen ez dela egiaztatuko balitz.
- 3.- Erabilera lagapena 10 urterako egiten da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitzen denean, erabilera lagapena automatikoki iraungiko da



eta Neiker-Instituto Vasco de investigación y desarrollo agrario, S.A enpresak basoa erabiltzeari utziko dio. Bere borondatez uzten ez badu, Bermeoko Udalak egoki iruditzen zaizkion administrazio eta lege neurriak hartuko ditu higiezina berreskuratzeko.

4.- Bermeoko Udalak baliorik gabe utzi ahal izango du erabilera lagapena aurretiaz, baldin eta gerora sortutako interes publikoko inguruabarrek justifikatzen badute, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Erabiltzaileak hilabeteko epean udal ondasuna libre utzi beharko du.

5.- Erabilera lagapena amaitzen denean, basoa bere horretan itzuliko zaio Bermeoko Udalari, egindako hobekuntzak barne, eta erabiltzaileak ez du izango kalteordainik jasotzeko eskubiderik hobekuntza horren trukean.

6.- LIFE URBASO proiektua garatuko duten langileak beti izango dira Neiker-Instituto Vasco de investigación y desarrollo agrario, S.A enpresaren enplegatu, eta ez dago inolako loturarik langile horien eta Bermeoko Udalaren artean.

Era berean, Neiker-Instituto Vasco de investigación y desarrollo agrario, S.A enpresa behartuta dago lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden xedapenak betetzera, eta udal administrazioak ez du erantzukizunik izango hori ez betetzeagatik. Era berean, Langileen Estatutuan eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dauden legeetan bere kargupeko langileei buruz ezarritakoa errespetatu beharko du.

7.- Neiker-Instituto Vasco de investigación y desarrollo agrario, S.A enpresak erantzukizun zibileko asegurua izan beharko du, baso horretan garatuko duen jardueraren ondorioz sortu daitezkeen, hirugarren pertsonen eta edukitzailearen gaineko okupazio-arriskuak estaltzeko.

8.- Basoa egoera onean mantendu eta kontserbatzea, bere kontura beharrezko konponketak eginez eta erabiltzaileek eragindako narriadurei ere erantzunez.

9.- Behar diren hirigintza-lizentziak eta gainerakoak kudeatu, izapidetu eta lortzea, indarrean dagoen araudi aplikagarriak horretarako zehazten duenarekin bat etorritz.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



10.- Udalak izendatutako pertsona edo profesionali basora sartzen uztea, basoaren erabilera egokia eta emandako baimenari hertsiki lotuta egiten dela ikuskatzeko eta egiaztatzeko..

11.- Basoaren erabilera, ezin izango du laga, errentan eman, eskualdatu edo transmititu. Debeku hau ez betetzea, erabilera lagapena bertan behera uzteko zioa izango da.

12.- Hirugarrenen aurrean eta Bermeoko Udalaren aurrean, basoan burutzen diren egintza edo omisioen erantzukizuna hartzea; beraz, udal-administrazioa erantzukizun zibiletik, penaletik edo ondaretik salbuestea, edozein motatako ustiapenetik edo erabileratik eratorritako gauzetatik.

13.- Neiker-Instituto Vasco de investigación y desarrollo agrario, S.A enpresak eskubidea izango du Udal honek erabilera lagapenaren xede diren ondasunak bere esku jartzeko, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

14.- Udalaren babesa lortzea, behar den bezain laster, hirugarren pertsonak, erabilera lagapen hau errespetatu dezaten, eta basoari eragiten dien gorabehera oro bertan behera utzi dezaten.

**BIGARRENA:** Erabakia interesdunari jakinaraztea, dagozkion errekurtsioak jasota.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Urigintza Sailari erabakiaren berri ematea.

**LAUGARRENA:** Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunari erabakiaren berri ematea, espedientearen kopia osoaz lagunduta.

## 5.- BERMEOKO AUZOETAKO ZENBAKIAK ZUZENTZEA ONARTZEA.

Victor Uriartek diktamenaren nondik norakoak azaldu ditu.

### Xedea

Bermeoko auzoetako zenbakiak zuzentzea.

### Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Lehenengoa: Eraikinen numerazioa horien identifikaziorako sistema bat da. Erakundeen administrazioarako eta, batez ere, eraikin horiek geografikoki lokalizatzeko balio behar du sistema horrek, bestela ez da izango eraginkorra.

Bigarrena: Hiriguneko eraikinez gain, aspaldikoa da administrazioak landa eremuko etxeen zerrendak egiteko izan zuen ardura<sup>1</sup>. Lehenago zergak edo herriko gastuetan guztiek parte har zezaten egiten ziren zerrendok. Horretarako izaten ziren fogerazioak eta errepartimenduak<sup>2</sup>. Horietan zerrenda soilak jasotzen ziren, jabeen izenekin, baina numeraziorik gabe.

Hirugarrena: Eraikinen zerrendetan numerazioa era egokian adierazteko ardura XIX. mendekoa da. 1860. urtean, herriko kaleez gain, landako eraikinak administratiboki antolatzekeo ardura egon zen, ohi zen legez, auzotan bananduta. Orduan, baserri auzoak, lau koarteleetan banatzen ziren (iparrekoa, hegokoa, ekialdekoa eta mendebaldekoa). Aurreko urtean egindako errebisioan argitu zenez, baserri batzuk era desegokian zeuden jasota espedienteen: Aborta, Santa Kruz, Txaboleta goikoa eta bekoa, Errematza, Guresua, Kantarape eta abar. Ondoren, zerrendak zuzenduta eman ziren, zenbait baserrien zenbakiak aldatuta<sup>3</sup>.

Laugarrena: 1897an, berriro aztertu zen kaleen eta baserrien egoera eta, aurretik egin zen legez, lau koarteleetan antolatuta aztertu ziren baserri auzoak eta berriz zenbait etxeen zenbakiak aldatu ziren<sup>4</sup>.

Bosgarrena: Gaur egunera etorrira, urteak aurrera eginez, eta eraikin berri ugariaren agerpenarekin, numerazioan irregulartasunak nabari dira. Ustez ohitura desegoki bati jarraituz, auzo batean etxe berri bat eraikitzean, auzo horretako azken zenbakiaren hurrengoa ipini izan zaio eta, horrela, esate baterako, geografikoki 4 zenbakidun eta 5

1 1511 eta 1514ko fogeretan baserrien aipu laburrak baino ez da agertzen (*Foguera-vecindario de las villas de Vizcaya de 1511 eta Foguera de las villas de Vizcaya de 1514*. Eusko Ikaskuntza. Fuentes documentales medievales del País Vasco. 1997).

2 1682 eta 1703ko errepartimenduak (*Bermeoko Udal Artxiboa. 1680-1710ko akta liburua*); 1704, 1745-46 eta 1796ko fogerazioak (*Bizkaiko Foru Artxiboa. Fogerak*)

3. 1860. *Bermeoko Udal Artxiboa 5. Rotulacion de calles*

4. 1897-98. *BUA 10. Nomenclator 1897-98*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



zenbakidun etxeen artean etxe berri bat eraikitzean, 34 zenbakiarekin ager daiteke, auzo horretako azken etxea 33 zenbakiduna bada.

Seigarrena: Hori horrela, antzemandako zenbaki desegokiak zuzentzeko lanketa egin du Lugintza Sailak. Lanketa hori egiteko, aurretik egindako zerrendak erabili dira, hala nola, 2007-2011 Legealdian Lugintza zinegotziaren eraginez egindakoa eta, 2022ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurarako, Lugintzako administrari laguntzaileak egindakoa. Era berean, <https://www.geo.euskadi.eus> webgunean eta Bizkaiko katastroan dauden numerazioez baliatu da lanketa egiteko.

### Argudioak

Lehenengoa: Gaur, irizpide administratiboaz gain garrantzizkoa da eraikinon numerazioak kokapen geografikoarekiko korrespondentzia gordetzea, hau da, ingurua ondo ezagutzen ez duenak etxe horretara jo ahal izateko erraztasunak ematea. Nabaria da sistema hori oso desegokia dela landa eremuko etxeak bilatzeko orduan. Zaildu egiten zaio lana korreoari, anbulantziari, suhiltzaileari, ertzaintzari edo udaltzaintzari, besteak beste. Landa eremuko biztanleak "galduta" gera daitezke urgentzia kasu batean. Numerazio egoki bat ezartzea oinarritzko gaia dela iruditu da eta horregatik egin da lanketa berria.

Bigarrena: Aurkitu dan numerazioan, besteak beste, ondoko desegokitasunak egon dira, beti ere, posizio geografikoa kontuan hartuta:

Arane auzoan:

- 16 eta 18 artean: 33 zenbakidun eraikina.
- 18 eta 19 artean: 31 zenbakidun eraikina.
- 23 eta 25 artean: 39A zenbakidun eraikina.

San Pelaio auzoan:

- 2A eta 9B artean: 35D zenbakidun eraikina.

Agirre auzoan:

- 2 eta 3 artean: 22 eta 23 zenbakidun eraikinak.





## San Migel auzoan:

- 1A eta 2 artean: 26 eta 23 zenbakidun eraikinak.
- 17 eta 18 artean: 13A eta 13B zenbakidun eraikinak.
- 21 eta 29 artean: 35 zenbakidun eraikina.

## San Andres auzoan:

- 3 eta 2 artean: 15 zenbakidun eraikina.
- 2 eta 4 artean: 7B zenbakidun eraikina.
- 9 eta 10 artean: 16 zenbakidun eraikina.

## Almika auzoan:

- 2 eta 3 artean: 12 zenbakidun eraikina.
- 7B eta 8 artean: 25 zenbakidun eraikina.
- 10 eta 11 artean: 53 zenbakidun eraikina.
- 11 ondoren: 24 zenbakidun eraikina.
- 16 eta 17 artean: 26 zenbakidun eraikina.
- 17 eta 18 artean: 23A, 23B, 22A eta 22B zenbakidun eraikina, ordena horretan.
- 21C ondoren: 28 A eta 28B zenbakidun eraikinak.

## Artika auzoan:

- 46A 47 artean: 55, 49, 50 zenbakidun eraikinak, ordena horretan.
- 47 ondoren: 58 zenbakidun eraikina.

## Demiku auzoan:

- 1 A ondoren: 19, 20A eta 20B zenbakidun eraikinak.
- 2 eta 4 artean: 21 zenbakidun eraikina.

## Arranotegi auzoan:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Datea: 11/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



- 1 eta 2 artean: 15 zenbakidun eraikina.

- 2 eta 6 artean: 16 zenbakidun eraikina.

Mañu auzoan:

- 8 eta 9 artean: 40 zenbakidun eraikina.

- 33 eta 35 artean: 39 eta 22 zenbakidun eraikinak.

- 41 eta 43 artean: 34A eta B zenbakidun eraikinak.

- 45 ondoren: 27 A eta 27 B zenbakidun eraikinak.

Guzti horregatik, numerazioan aldaketak egitea oso beharrezkotzat ikusi da. Eta horretarako, ondoko irizpideak izan dira kontuan:

1. Posizio geografikoarekiko korrespondentzia gordetzea.
2. Numerazio sistema kaltetzen ez duten neurrian, baserri historikoen zenbakiak bere hartan mantentzea.
3. Baserri historikoen zenbakiak aldatzea hurrenkera numerikoa ez datorrenean bat posizio geografikoarekin.
4. Baserri ondoan eraikitako eraikin berriagoei, haren zenbakia gehi A, B, C, e.a. jartzea. Aurrerantzean prozedura hau jarraitzea proposatzen da, numerazioaren errebisioak errazteko.
5. Ahalik eta aldaketa gutxien egitea, herritarren deserosotasunak ekiditeko.
6. Zenbait zenbaki egokitu gabe utzi dira (libre), aurretik horrela zeudelako eta, beharbada, noizbait erabilgarri izan daitezkeelako.
7. Agirre auzoan kokatuta dagoen etxe batek bertara joateko bidea Arane auzotik izateagatik eta aurretik azken auzo honetako etxeen artean zerrendatuta egonik, Arane auzoan utzi da, hala eskatuta jabeak. Erabakia Arane auzokideen batzarrean hartu da (2024ko otsailean).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



8. Nahiz eta gaur egun hutsik egon eraikin batzuk (baserriak), zenbakia gorde egin zaie.

9. Zenbaki aldaketa eragin zaien etxeetara joan da jabeei aldaketaren berri ematera eta adostasuna bilatzera. Zenbait etxeetan, behin eta berriro joan arren, ez da inor aurkitu, eta abisatu gabe geratu dira. Dena dela, auzo-alkateei eman zaie numerazio berriaren proposamena.

Hirugarrena: Numerazioaz gain, ikusi da egokia dela, ohiturari jarraituz, eraikin bakoitzak bere izena edukitzea, baserriak izan ohi duten moduan (257 bat eraikinetik, 18 bat etxe dira izen bakoak).

Laugarrena: Eraikinen zenbakitzearen gainean, honakoa dio Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua onartzen duen 1.690/1986 Errege Dekretuak bere 75.1 artikuluan: *“Los Ayuntamientos mantendrán actualizadas la nomenclatura y rotulación de las vías públicas, y la numeración de los edificios, informando de ello a todas las Administraciones públicas interesadas”.*

Zenbakiak ematerako orduan, 1996ko Biztanleen Udal Errolda berritzeko atariko lanak egiteko jarraibideak ematen zituen 1995ko apirilaren 6ko Aginduaren III. Eranskinean, eraikin eta etxebizitzak zenbakitzeko zehaztutako argibideetan honakoa jasotzen da:

**\*1. Numeración de edificios.**

*(...) Para la numeración de edificios se aplicarán los siguientes criterios:*

*(...) c) Deberá darse solución lógica a todos aquellos casos excepcionales que no se ajusten a la disposición habitual de edificios formando calles y plazas, de manera que cada entrada principal quede siempre identificada numéricamente. A título de ejemplo se puede considerar el caso, bastante frecuente en la actualidad, de edificios o bloques con portales o entradas independientes sin acceso directo desde la calle; la solución consistirá en colocar en la calle en la que el bloque de edificios tuviera el acceso principal, un rótulo que contenga el total de números a que da acceso.*

*d) Al realizar esta revisión se procurará eliminar duplicados, triplicados y otras anomalías que hayan podido aparecer desde la ordenación anterior, por construcciones intermedias y otras causas, integrándose así a la serie normal de la vía.*

*e) No obstante lo recomendado en el apartado anterior, si existen dificultades para realizar una nueva numeración, y siempre que no existan problemas de identificación, podrá aprovecharse la*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



existente, de modo que cada entrada principal e independiente que de acceso a viviendas y/o locales tenga una identificación inequívoca, añadiendo las letras a, b, c... al número común, en aquellos casos que sea necesario, para no romper la serie numérica de la vía a que pertenecen. Podrán asimismo, mantenerse los saltos de numeración debidos a derribos de antiguos edificios o a otros motivos, que tendrán el carácter de provisionales.

f) Los solares para construir se tendrán en cuenta por su anchura, posición o futuro destino, reservando los números que se juzguen convenientes con el fin de evitar en lo venidero modificaciones de numeración en la calle o vía a que pertenecen. Dichos números se considerarán igualmente como provisionales”.

**Bosgarrena:** Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.b) artikuluan xedatzen denarekin daukan antzekotasunagatik, Osoko Bilkurari dagokiola irizten da.

## Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

**LEHENENGOA:** Bermeoko auzoetako zenbakiak zuzentzeko, jarraian zehazten diren zenbakien aldaketa onartzea, eta beste guztiak bere horretan mantentzea:

## SAN MIGEL AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
1B	26	026	LARROSADI
1C	23	027 BIS	LARROSADI
17A	17	018	ITUBIZKARTXIKERRE
17B	13A	017DUP	ITUBIZKARNAGUSI
17C	13B	017DUP	ITUBIZKARNAGUSI
22	35	35	ETXEBARRIERREKABEKO
23	29	029	ETXETXUBARRI
24	28	028	JERONIMONE
25	27	028BIS	IBAIGANE
26		028DUP	ERROTABARRI AURREKOA
27	30	028TRI	ERROTABARRI
28			ARKOTZE
29			GOIKOGORTA
30			BALTZANE
31			ERREMATZANE
32			KANTARAPE

## MAÑU AUZOAN



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
1A	1	003E	KARMENGO ELIZA
1B		003DUP	MANUKO ESKOLAK
3A eta 3B	3	003A	BENTABARRI
9A	40		OLALDE
13A	13B	013002	KASABARRIAURREKO
13B		014	KASABARRIATZEKO
15		016	MANUGOIKO
15A	15	016	MANUGOIKOATZEKO
22	23A	022	KOLISONE
23	23B	023	KOLISONE
34B	39	054	ARANTZADI
34	22	032	BIORGORTA
39			OIANGORTAKO ERROTA
40			OLAZARRETA
42A	34B	001	ERENOTZAGA
42B	34A	002	ERENOTZAGA
46A	27A	044DUP	LANDANEGOIKO
46B	27A	044DUP	LANDANEGOIKO
47	27B	043	LANDANEBEKO

## ALMIKA AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
2B	12	003E	SABINETXE
7C	25		"GOIZ ARGI"
10B	53	011BIS	BARREN ETXEA
11B	24	024	SANTIÑE
12		011B	ELIZA
12B		016B	INGERUGUARDAKO ERMITA
16B	26	026	TXINDURTZA GANE
17A	23A	028	ITURRIENE
17B	23B	029	ITURRIENE
17C	22A	030	
17D	22B	031	
22	27	019BIS	LANDAGANE
23A	28A	020TRI	LANDATXU
23B	28B	020TRI	LANDATXU

## DEMIKU AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
2		022	TONTORRE
3A	19	019	"ALDAPAETXEA"
3B	20A	018A	"MENDIPUNTE"
3C	20B	018A	"MENDIPUNTE"
4C	2	002	KANDELARIOKO ERMITA
3E	016	016	"MONTESILLO"



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

### Sinadurea eta dataea

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



3D	21	008A	"ATXIKANE"
16	15	0014	ZARRAN

### SAN ANDRES AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
2	3	003	UDAETXE
3A	15	005DUP	"MENDIGANE"
3B	15	005DUP	"MENDIGANE"
3C	2	002	"BAKEA"
3D	07B	007DUP	"KASITAS"
9B	16	019	"ITSAS AURRE"

### ARRRANOTEGI AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
1B	15	015	"URKEMENDI BARRI"
2B	16	003TRI	"KABI ETXEA"
8B		008DUP	LOKEDO

### AGIRRE AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
2A	22	002D	"NEKANE ENEA"
2B	23	002TRI	"ANA ENEA"
5B		005B	

### ARANE GIBELORTZAGA AUZOAN

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
1A	1	001	ITSASGANE
3	3A	003	TXANKANE
8C	3	001TRI	"ARANBURU ENEA"
9B	9	009A	"GOIALDE"
17	33	033	"SABIN ETXEA"
18B	31	031	"MIRUENE"
24	39A	39A	"BURGOGANE"
30	24	024	GOROSTADI
33	33B	033B	MUSKERRITXUNE
40	40A	040	ITURRIETA
40B	40	40D	"AMETS"
43B	53	053	"ITSASBEGI"

### SAN PELAIU



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta dataea

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
1	1C	001E	ERMUGOIKO
3	35D	035D	SANJONALDE
4		027TRI	PAULGORRI
5	9B	009	URKIDI
6	7B	007	GOIENTZABALE
7		051	ERDIKOETXE
8	6A	004	GISASTI
9		037C	ZURTZURI
10		037D	TXARALE

## ARTIKA

UDALEKO ZENBAKI BERRIA	2022KO MAIATZAREN 27KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKOA	KATASTROKO ZENBAKIA	IZENA (ETXEBIZITZA)
2		031	IRASTORZA
12		010	POIUERROTA
15		012	
38		009	ENPARE
39		010	ENPARE
40	38	038	FRANTZUNE
47A	55	043DUP	"MADARIKO ETXEA"
47B	49	043BIS	"TRIBIZPE"
47C	50	043A	"TRIBIZ AZPI"
48		049DUP	TRIBIZ
48A	48	048	TRIBIZONDO
49	47	047	"TRIBIZBURU"
50A	58	058	"TRIBISENE"
50B	59	059	"TRIBIZ GOIKO"

**BIGARRENA:** Izena duten eraikin guztiei, izena ipintzea zenbakiarekin batera.

**HIRUGARRENA** Interesdunei, auzo alkateei, Urigintza Sailari eta Idazkaritza Sailari erabakiaren berri ematea.

**LAUGARRENA:** Erabakiaren ondorioz eraginda suertatu daitezkeen erakunde eta hornitzaile guztiei erabakiaren berri ematea, hala nola, Jabego Erregistroa, Bizkaiko Foru Aldundia (Katastroa), INE, EUSTAT, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa, Correos, argindar eta gas horniduren enpresak, telefonia horniduren enpresak eta Google.

## 6.- 2023 URTEKO BIZTANLE-ZIFRA ONARTZEA.

### Xedea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



2023. urteko biztanle-zifra onartzea.

### Aurrekariak

Bakarra: Estatistikako Institutu Nazionalak, Bermeoko udalerriari 2024ko urtarrilaren 1ean jagokon biztanle-zifraren proposamena bialdu eban 2024ko martxoaren 210ean. Biztanle zifra 17.042 biztanleetan finkatzen da.

### Argudioak

Bakarra: Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Kooperazio Lokaletarako zuzendaritza nagusiaren 2005eko urriaren 25eko Ebazpena, udal eroldaren urteroko berraztertzeaz eta populazio-zifra ofizialen proposamena jakiteko prozedurari buruzkoa.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: 2023. urteko biztanle zifra 17.042 biztanleetan onartzea.

BIGARRENA: Estatistikako Institutu Nazionalari erabagiaren barri emotea.

## 7.- 2024 URTEKO LOKALBIDE PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAREN OINARRIAK ONARTZEA.

Maite Caruezkok diktamenaren nondik norakoak azaldu ditu.

### Xedea

2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarriak onartzea

### Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa Bermeoko Alde Zaharraren dinamizazioa da eta garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Bigarrena: Lokalbide dirulaguntzaren helburua, alde batetik, Alde Zaharra ekintzaileentzako gune erakargarria bihurtzea eta bizitasuna emotea da eta, beste aldetik, jarduera gabeko lokal hutsei bisibildadea emotea.





Hirugarrena: Aurtengo deialdian bi lerro aurreikusten dira Lokalbideko dirulaguntzan: alde batetik, aurreko urteetako alokairuarena , beste aldetik, birgaitze lanak egiteko beste lerro bat.

Laugarrena: Lokalbideko dirulaguntza argitaratu zenetik gaur egun arte, hogeita bi ekintzailek bere negozioa ireki dute.

Bosgarrena: Bermeoko Udalak 2023 urtean, 22.800 euro bideratu ditu Lokalbide programaren bitartez.

Seigarrena: 2024ko martxoaren 23an Behargintzako zuzendariak udal dirulaguntzaren txostena (0 fasea) egin du.

Zazpigarrena: 2024ko maiatzaren 17an, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, txosten juridikoa egin dau.

Zortzigarrena: 2024ko maiatzaren 23an, Bermeoko Udaleko kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin dau.

### Argudioak

Lehenengoa: 2021,2022 eta 2023 urteko Lokalbide dirulaguntzaren balorazio eta helburuen lorpena egokia izan da.

Bigarrena: 2024ko deialdia exekutatzeko aurreikusita dagoen aurrekontu kreditua guztira 35.700 eurokoa da. Bi lerrotan zatitzen da:

Alokairua: 25.200,00 €.

Birgaitze lanak: 10.500,00 €.

7 ekintzaileentzako dirulaguntza urte baterako izango da, udalaren 2024ko aurrekontuaren kontura, 2024-01000-43300-4710002 partidatik hain zuzen ere.

Hirugarrena: Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluaekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

### Erabakia



#### Sinadurea eta data



Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

**LEHENENGOA:** 2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarriak (Eskabide orriak barne) onartzea.

**BIGARRENA:** Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea Datu Baseari.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari eta Berualari erabaki honen berri ematea.

**LAUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea

Abstenitzeko betebeharra izateagatik, Arantza Ormaza, Victor Uriarte, Miren Karmele Gabantxo eta Alazne Zumeta batzar gelatik irten dira.

## 8.- EH BILDU ETA GUZAN UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO "EAEKO PORTUETAN ONTZIEN AMARRALEKUAK EMATEKO PROZEDURA ETA ERABILERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZ" IZENENKO MOZIOA ONARTZEA.

Alkateak mozioa irakurri du:

**"EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz**

Euskal Herriak lotura estua du itsasoarekin. Mendeetan zehar, itsasoari begira eta itsasora emana bizi izan da. Harreman hau ez da ogibide baten sortze eta garapenera bakarrik mugatzen; aitzitik, euskal gizarte osoaren bizimodua baldintzatu du, baita beste herrialde batzuekiko harremanak ere. Bestela esanda, euskaldunok aspaldidanik egin dugu itsasoa lantoki, baina itsasoari lotutako jarduera ez da inoiz sektore ekonomiko hutsa izatera mugatu. Balio kulturala izan da, euskaldunon kultura-ondarearen gordailua. Eta portuek eta kaiek kultur transmisiorako espazio gisa bete duten funtzioa agerikoa da, hauetan iraun baitute itsas munduko tradizio eta ohiturek.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Azken urteotan, ordea, agerikoa da euskal kostaldeko eta, batez ere, portuetako errealitatea erabat aldatu dela. Arrazoiak askotarikoak dira, baina horien artean dago kirol-portuak eta kirol-nabigazioa sustatzeko aurrera eraman den egitasmoa. Aisialdirako ontzi flota handia, gorantz doan eskaera amaigabea... Horrela, arrantza-portu izan ziren asko kirol portu bihurtu dira, eta errealitatea aldatzearekin, arazo eta desoreka berriak sortu dira. Horren adibide garbia amarralekuen auzia da.

Ekonomiako, Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko 5330 Aginduak laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautu zituen, baita haren aplikazio eremua ere. Data horretatik aurrera euskal kostaldeko hainbat portutako amarralekuen emakida prozedurak ireki ziren, besteak beste, Plentzian edo Donostian.

2017ko urriaren 19ko aginduaren helburua "araz kanpoko" egoera bat erregularizatzea eta eguneratzea eta amarralekuak erabiltzeko baimen-prozedurak arautzea bazen ere, hura ezartzen hasteak kezka eta ezinegona sortu zuen kostaldeko herri guztietan. Horren adibide dira abian jarritako salaketa judizialak, hala nola Euskadiko Kirol Portuen zuzendariaren aurka Donostiako epaitegiak 2022ko urriaren 29an onartutako kereila, edo toki-erakundeek herritarren aldetik jaso dituzten esku-hartze eta laguntza eskaera ugariak.

Kezka eta ezinegon hori, gehienbat, amarralekuak esleitzeko 5330 Aginduaren 14. Artikuluan ezarritako esleipen-irizpideen eragin zuten. Zuzenago esanda, irizpideen zehaztugabetasunak eta horiek behar ez bezala aplikatzeak. Aipatu artikularen arabera, amarralekuak esleitzeko "aintzat hartuko dira ontziaren neurri zehatzak (luzera, zabalera eta sakonera), eskaintako amarralekuekin alderatzeko"; gainera, "lehentasuna emango zaie amarralekua eskatzeko unean ontzia baduten eskatzaileei eta amarralekuko neurrietara hobekien egokitzen diren ontziei, betiere ontziaren luzerak eta zabalera aukera ematen badute atrakatzeko manioobra egokiak egiteko"; eta eskatzaileen artean "berdinketa egonez gero, notario aurrean zozketa egingo da". Bada, agindua ezarri den portuetako amarratzaileek salatu dutenez, oinarrietan jaso gabeko irizpideak aplikatu dira, plazarik gabe geratu diren ontziek baino aprobetxamendu hobea ez duten plazak esleitu dira, edo berdinketa-egoera batzuk ez dira notarioen aurrean ebatzi.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



Irregulartasun horiek guztiek ondorio judizialak izan dituzte. 2023ko otsailean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak bertan behera utzi zuen EKP erakundeak 2021ean Donostiako kaian egindako amarralekuen banaketa, eta, 2023ko apirilean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiak baliogabetu egin zuen Plentziako amarralekuen deialdia ebazten zuen erabakia.

Bestalde, aginduak ez du antzintasuna irizpidetzat hartzen, eta, beraz, ez ditu babesten portuek historikoki bete duten funtzio sozialaren jarraipena bermatzen duten erabiltzaileak, hala nola erretiroa hartu ondoren plaza bat ziurtatua zuten arrantzaleak.

Amarralekuak berritzeko prozesuak euskal portuetan sortutako gatazka arau berria egin aurreko elkarrizketaren bidez saihests zitekeen. Eta horixe da, hain zuzen ere, amarratzaileen elkarteek eskatzen dutena, elkarrizketa. Esan bezala, gure portuen errealitatea aldatu egin da, eta gaur egun inor gutxik ezagutzen du portuetako egoera amarratzaileek beraiek baino hobeto, gehienak eguneroko erabiltzaileak baitira. Elkarte horietako askok ibilbide luzea dute portuen kudeaketan, hainbatetan amarralekuak ere kudeatu dituztelarik. Hala ere, arau berria osatzeko prozesuan ez dira aintzat hartuak izan. Hori guztia kontutan hartuta, Bermeoko Udalbatzak, mozioa berea egin eta ondorengoa eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

- 1.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusi eta egokitzeko izapideak martxan jartzea, sortu den gatazkaren iturburuan dauden irizpideak zuzenduz.
- 2.- Abian dauden edo aurreikusitako dauden amarralekuen esleipen-prozesuak behin-behinean gelditzea eta kaltetuekin, hots, amarratzaileen elkarteekin elkarrizketa hastea, egoera bideratzeko.
- 3.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta partaidetzan oinarritzea, eta EKPko portuak kokatzen diren udalerriekin elkarlanean garatzea, horretarako tokian tokiko Portuko Udal Batzordean sortuz, Ekainaren 28ko 2/2028 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioen Legearen 1. kapituluko 4. artikuluan xedatuta dagoen bezala.
- 4.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua egokitzeko lanketan honako irizpideak aintzat hartzea:
  - Herri eta portu bakoitzaren egoera desberdina da, eta, beraz, arauak tokian tokiko



errealitatea aintzat hartu eta horretara egokitzeko aukera eskaini behar du, betiere herrien eta herritarren artean bereizkeriarik sortzen ez bada.

- Amarralekuen esleipenean portua dagoen herriko herritarrek lehentasuna izatea: lehenik, herrian erroldatuta daudenak (errolda zaharrena dutena lehenik eta gutxienez urtebeteko errolda dutenak), eta ondoren, hurrenez hurren, eskualdeko herrietan erroldatuta daudenak (gutxienez urtebete) eta, azkenik, beste autonomia erkidegoetan erroldatuta daudenak (gutxienez urtebete).
- Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzintasuna irizpide bat izatea eta itsas kostaldeko ondare materiala eta inmateriala berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei lehentasuna ematea.

5.- Mozio honen onarpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.”

Idoia Platasek esan du gaur ekarri den mozioa 2021eko maiatzean EH bilduk hainbat udaletan eta legebiltzarrean aurkeztutako mozioa dela. Esan du dagoeneko izapidetuta dagoen mozioa dela eta mozioan jasotako neurriak lantzen hasi direla. Gaineratu du bat datozela mozioaren atal batzuekin, baina araudia aldatzeak ez duela arazoa konponduko, amarre eskaerak dauden amarreak baino gehiago direlako; eta eskatu du legea zorroztasunez eta ondo aztertuta idazteko irizpideak. Aurreratu du mozio alternatiboa aurkeztu dutela eta mozio alternatiboa irakurri du:

**“EAEko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta erabilera arautzen duen dekretuari buruz**

Euskadiko portu-tradizio luze eta finkatuak eragin ekonomiko eta sozial handia izan du gure kostaldeko herrien garapenean, arrantza, merkataritza eta industria sektoreen bultzadari esker; eta, horrekin batera, Euskadiko aisialdiko jarduera nautikoaren hazkundera eta euskal kostaldearen garapen turistikoaari esker.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024  
10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187

Fecha: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela portuen arloan, betiere interes orokorrekoetat sailkatuta ez badaude.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak urte asko daramatza arlo hori behar bezala kudeatzen, eta agerian daude emaitzak.

Duela hogeita urte, aisialdiko nautikari dagokionez, Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisialdiko ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duena, arauz kanpoko egoera bat erregularizatzeko.

Hala ere, agindu hori aplikatu zenetik hamarkada bat baino gehiago igaro zenean, araua eguneratu beharra zegoela ikusi zen, kirol-portuetako egoera berrietara egokitzeko. Horregatik, arau-xedapen berri bat eman zen, amarralekuak emateko prozedura arautzen duena; AGINDUA, 2017ko urriaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, laketontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura eta araubidea arautzen dituen. Xedapen horrek, egin eta onartzeko, legez ezarritako izapide guztiak jarraitu zituen, informazio publikoa eta alegazioen izapidea barne.

Illo horretan, 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legea onartu zen, eta lege horren arau-garapenean aurrera egin da azken legegintzaldi honetan. **Lege horretan, besteak beste, Portuko Udal Kontseiluak sortu dira, eta horien izapidea azken fasean dago, behin betiko onartzeke eta aldizkarian argitaratzeke; beraz, laster gauzatuko dira.**

Agindu hori aplikatu zenetik zazpi urte igaro dira, eta aisialdiko nautikak azken urteotan izan duen bilakaera azkarra ikusita (ondorioz, arazo eta errealitate berriak agertu dira), **egiaztatu da araua eguneratu beharra dagoela, egoera berrietara egokitzeko.**

Hala adierazi du Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian, eta badakigu **egokitzapen hori izapidetzen ari dela.**

Horregatik, Bermeoko Udalak zera adierazten du:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/07/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/07/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/07/2024 10:00:58

DOCUMENTO: 20241068187  
Data: 11/07/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E800104C9B00T6H2B4G3B8W0



1.- Aitortzen dugu Euskadiren bilakaera ekonomiko, sozial eta politikoaren zati handi batek lotura estua duela merkataritza, industria eta arrantza jarduerekin; izan ere, portuetan jarduera horiek garatzeko beharrezko azpiegiturak dituzte. Baita kirolei eta aisialdiko jarduera nautikoei dagozkien aisialdiko jarduerak ere.

2.- Aitortzen dugu gure herriaren eta udalerrien bilakaera sozioekonomikoak herritarren ohiturak, beharrak eta eskaerak aldatu dituela. Aldaketa horiek direla eta, etengabe berrikusi eta egokitu behar dira araudiak, ordenantzak, dekretuak edo edozein motatako administrazio prozedurak; portu sektorea ere egokitu behar da.

3.- Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diogu jarrai dezala, aurreko legealdian hasitako ildotik, aisialdiko nautikari aplikatu beharreko araudia eguneratuz, gaur egun kirol-portuetan dauden egoeretara egokitzeko. Erregelamendu berriak oinarri juridikoak ezartzen ditu portuak herrialdeko garapen sozioekonomikorako elementu gisa kudeatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legeak ezartzen dituen jasangarritasunaren, elkartasunaren, baliokidetasunaren, konkurrentzia askearen, kudeaketa integratuaren eta irisgarritasunaren printzipioekin bat etorriz, instalazioen erabilera multifuntzionala, ingurunearen errealitate sozioekonomikoa eta aktibo publikoen arrazoizko errentagarritasuna kontuan hartuta, eta azken urteotako esperientziak eman duen kasuistika guztiari irtenbidea emateko.

4. - Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diogu jarrai dezala kirol-portuen kudeaketa etengabe hobetzeko konpromisoarekin eta konpromiso horrekin, portu sektorean inplikaturik dauden sektore ekonomiko, profesional eta sozialekiko partaidetza indartzen jarrai dezan.”

